## BECA JUAN Y PABLO DE OTAOLA
Premio Gura Artea 2014

La Beca Juan y Pablo de Otaola, creada por Pablo de Otaola en 1990 como homenaje a su padre Juan, tiene como objetivo contribuir a la formación de los artistas plásticos residentes en la CAV. Para ello, ofrece una estancia de cuatro meses en la Cité internationale des arts de Paris, en adelante "la Cité", donde el artista becado deberá realizar el Proyecto presentado por él a la actual convocatoria.

Desde el inicio de la Beca, el Ayuntamiento de Basauri, a través de la Casa Municipal de Cultura, se ha encargado de su gestión, realizando la convocatoria de la Beca, la selección de los miembros del jurado y el seguimiento del artista becado.

La Beca fue galardonada en 2014 con el Premio Gure Arte que concede anualmente el Gobierno Vasco por su aportación a la promoción de las artes plásticas y visuales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

## JUAN ETA PABLO DE OTAOLA BEKA
*GureArtea Saria 2014*

*Juan eta Pablo de Otaola Beka, Pablo de Otaolak berak sortu zuen 1990ean, bere aita Juanen omenez, EAEn bizi diren artista plastikoen prestakuntzan laguntzeko asmoz. Horren harira, lau hilabeteko egonaldia eskaintzen du Cité Internationale des Arts de Parisen (aurrerantzean, Cité), bekadun artistak indarreko deialdian aurkeztutako proiektua gara dezan.*

*Beka, sortu zutenetik, Basauriko Udalak kudeatu du, Kultur Basauriren bitartez: udal kultur-etxeak egin izan du deialdia, epaimahikideak hautatzea eta bekadun artistaren jarraipena.*

*Bekak GureArtea Saria jaso zuen 2014an. Eusko Jaurlaritzak ematen du sari hori urtero, Euskal Autonomia Erkidegoan arte plastiko eta bisualei egindako ekarpenaren aintzatespen gisa.*

# CITÉ INTERNA-TIONALE DES ARTS PARIS

La Cité es la mayor residencia de artistas del mundo, con dos centros en París, donde recibe cada año 1.200 artistas de todos los orígenes y disciplinas. Su objetivo es favorecer los encuentros e intercambios entre ellos y así potenciar la creatividad. Los residentes forman parte de una comunidad de más de 300 artistas, disfrutan del dinamismo cultural de la Cité y pueden presentar su trabajo en un Open Studio (ver folleto adjunto y la página web www.citedesartsparis.fr).

*Artistentzako munduko egoitzarik handiena da Cité. Bi zentro ditu Parisen, eta jatorri eta diziplina guztietako 1.200 artista hartzen ditu urtero. Haren helburua da artisten arteko topaketak eta trukeak sustatzea eta, horren bidez, sormena bultzatzea. Egonaldi bakoitzean,300 artistatik gora bizi dira bertan, eta aukera izaten dute Cité-ren kultura-dinamismoaz gozatzeko. Bestalde, haien lana Open Studio batean aurkeztu ahal dute (ikus erantsitako liburuxka eta www.citedesartsparis.fr web orria).*

# BECA JUAN Y PABLO DE OTAOLA



## BASAURI
2018

# BASES-OINARRIAK

## 01.

Podrán solicitar la Beca todas aquellas personas residentes en la CAPV, mediante un escrito dirigido al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Basauri, a presentar en la Conserjería de Gizarte Etxea Basozelai (Basozelai, 11 - 48970 Basauri) antes del viernes 8 de junio de 2018. El escrito de solicitud deberá expresar la aceptación por el peticionario del fallo que se produzca y el compromiso de cumplir las bases de esta convocatoria y deberá ir acompañado de los siguientes documentos:

> *Fotocopia del D.N.I.*
>
> *Documentación acreditativa de sus conocimientos y aptitudes en la especialidad.*
>
> *Documentación acreditativa de su nivel de conocimiento de francés y/o inglés.*
>
> *Memoria explicativa del Proyecto y Metodología del trabajo a realizar, con una extensión máxima de seis folios.*
>
> *Podrá, además, presentar documentación de su obra anterior realizada durante los últimos tres años, en formato papel.*

*Beka hau Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den edozein pertsonak eskatu ahal izango du. Horretarako, Basauriko Udaleko alkate udalburuari zuzendutako idatzia aurkeztu beharko dute Basozelai Gizarte Etxeko atezaindegian (Basozelai, 11 – 48970 Basauri), 2018ko ekainaren 8a baino lehen. Idatzi horretan adierazi beharko dute, batetik, onartu egiten dutela epaimahaiak hartutako erabakia, eta, bestetik, deialdi honetako oinarriak betetzeko konpromisoa hartzen dutela. Bestalde, idatziari honako dokumentu hauek erantsi beharko dizkiote:*

> *NANaren fotokopia.*
>
> *Espezialitate honetan dituzten ezagutzak eta gaitasuna egiaztatzen duen dokumentazioa.*
>
> *Frantsesaren edota ingelesaren ezagutza-maila egiaztatzen duen agiria.*
>
> *Proiektuari eta egingo den lanaren metodologiari buruzko memoria (gehienez ere,sei orrialde).*
>
> *Azken hiru urteotan egindako lanari buruzko dokumentazioa ere aurkeztu ahal izango du artistak, paperean.*

## 02.

Será condición imprescindible para la concesión de la Beca que el artista se comprometa a hacer su estancia en la Cité en el periodo señalado y tener un nivel medio de francés o inglés.

*Beka jaso ahal izateko, nahitaezko baldintza izango da ezarritako aldian artistak Cité-n egoteko konpromisoa hartzea, eta frantsesaren edo/eta ingelesaren ezagutza-maila ertaina izatea.*

## 03.

El Jurado resolverá en un plazo máximo de 15 días la concesión de la Beca y podrá, antes de concederla, si lo estimase necesario, solicitar cualquier aclaración o documentación complementaria, incluida la comprobación del conocimiento de francés y/o inglés.

*Epaimahaiak 15 eguneko gehienezko epean ebatziko du Beka nori eman. Era berean, Beka eman aurretik, eta horretarako beharra ikusiko balu, edozein motatako argibideak zein dokumentu osagarriak eskatu ahal izango ditu, frantsesaren edota ingelesaren ezagutza-mailaren egiaztagiria barne.*

## 04.

La documentación presentada podrá recogerse antes del 31 de julio de 2018 en la Conserjería de Gizarte Etxea de Basozelai (Basozelai, 11). En ningún caso la documentación se devolverá por correo.

*Hautagaiek Basozelai Gizarte Etxeko atezaindegian (Basozelai 11) jaso ahal izango dute aurkeztutako dokumentazioa, 2018ko uztailaren 31 baino lehenago. Lan horiek ez dira postaz itzuliko.*

## 05.

**Las condiciones de la Beca son las siguientes:**

Estancia en la Cité desde el 5 septiembre al 27 diciembre de 2018, pagada directamente por la Beca, en el taller-vivienda situado en el 15 rue Geoffroy Lanier y dotado de espacio de trabajo, habitación, cuarto de baño y cocina.

A su llegada a París el artista pedirá una cita con el equipo de la Cité para presentar el proyecto becado, que deberá realizar durante su estancia.

El artista deberá tener un seguro médico y de repatriación que le cubra durante su estancia en la Cité y que deberá presentar en dicha cita.

El artista deberá tener un seguro médico que le cubra durante su estancia.

La Cité se encargará de realizar el acompañamiento del artista en París.

El artista percibirá 3.600 euros para sus gastos de viaje a París y manutención durante su estancia en la Cité. El pago se realizará en seis fracciones mensuales iguales, la primera el 30 de julio y la última a la entrega del trabajo tras su estancia en la Cité.

El artista es responsable del buen estado de la vivienda-taller donde va a residir y trabajar. La Beca entregará a la Cité una fianza, que será devuelta al final de la residencia. Si la fianza o parte de ella no es devuelta debido a deficiencias detectadas en la vivienda-taller, esa cantidad será descontada del último pago al artista.

A la mitad del período de ejercicio de la Beca, el Jurado podrá exigir información del trabajo realizado hasta ese momento y, según el resultado de la misma podría decidir la inmediata interrupción de las percepciones de la Beca.

Previa justificación, el artista podrá disponer de un complemento económico para el traslado de la obra realizada durante su estancia.

Una vez finalizada su estancia en la Cité, el artista deberá entregar en la Casa Municipal de Cultura de Basauri una Memoria, tanto visual como escrita, del trabajo desarrollado en la Cité

***Hauexek dira Bekaren baldintzak:***

*Bekak zuzenean ordainduta, egonaldia Cité-n, 2018ko irailaren 5etik abenduaren 27ra, 15 rue Geoffroy Lanier-en dagoen tailer-etxebizitzan (non lanerako tokia, logela, komuna eta sukaldea baitaude).*

*Parisera heltzean, artistak hitzordua eskatu beharko du Cité-ren taldearekin, beka jaso duen proiektua aurkezteko. Gero, proiektu hori bera garatu beharko du, Cité-ko egonaldian.*

*Bekadunak osasun- eta aberriratze-asegurua izan beharko du, Cité-n dagoen bitartean, eta hura aurkeztu aurreko atalean aipatutako hitzorduan.*

*Cité arduratuko da Parisen artistari laguntzeaz.*

*Artistak 3.600 euro jasoko ditu Pariserako bidaia-gastuak eta Cité-n dagoen bitarteko mantenua ordaintzeko. Ordainketa sei zati berdinetan egingo da, hilean bat. Lehenengoa uztailaren 30ean egingo da, eta azkena Cité-n egon ostean, lana entregatu eta gero.*

*Artista arduratuko da bere etxebizitza eta tailerra izango dena egoera onean izateaz. Bekak fidantza bat emango dio Cité-ri, eta, egonaldia amaitu eta gero, Cité-k itzuli egingo du fidantza hori. Etxebizitza-tailerra behar bezalako egoeran egon ez, eta fidantza, osorik edo zati batean, itzultzen ez bada, artistari egin beharreko azken ordainketatik deskontatuko da dagokion kopurua.*

*Bekaren indarraldiaren erdia igaro denean, epaimahaiak tarte horretan zehar egindako lanaren bilakaerari buruzko informazioa eskatu ahal izango du, eta, horren arabera, Bekaren ordainketa berehala etetea xedatu ahalko du.*

*Aldez aurretik justifikatuta, artista bekadunak diru-osagarria jaso ahalko du Cité-n egindako lana lekualdatzeko.*

*Cité-ko egonaldia amaituta, bertan egindako lanaren memoria aurkeztu beharko du Kultur Basaurin, bisuala eta idatzia.*

## 06.

Con el objetivo de impulsar y difundir el arte entre los jóvenes del municipio de Basauri, una vez concluida su estancia en París, el becado deberá realizar alguna actividad didáctica (taller, charla, ...) en centros educativos de Basauri o equipamientos que puedan acoger esa intervención. La Casa de Cultura y el artista determinarán y organizarán el programa a desarrollar.

*Udalerriko gazteen artean artea sustatu eta hedatzeko helburuz, bekadunak, Pariseko egonaldia amaitutakoan, jarduera artistikoren bat (tailerrak, hitzaldiak...) egin beharko du Basauriko ikastetxeetan edo halako ekimenak egiteko egoki diren tokietan. Kultur Basaurik eta artistak berak zehaztu eta antolatuko dute garatu beharreko programa.*

## 07.

La concesión de la Beca no supone la pérdida de la propiedad del trabajo por parte del artista, No obstante, éste se obliga a contar con la autorización del Director de la Casa de Cultura para la exposición de la obra y, en todo caso, será obligatoria la mención expresa a la Beca concedida.

La denegación expresa de dicha autorización habrá de ser razonada y podrá basarse en la no adecuación del espacio donde se pretende exponer el trabajo becado o en evidentes consideraciones que lo desaconsejen, desde el punto de vista del interés público o de la legalidad vigente. El transcurso de quince días sin denegación expresa, equivaldrá a su autorización.

*Beka lortuta ere, egileak egindako lanaren jabe izaten jarraituko du. Hala ere, lan hori erakutsi nahi badu, Kultur Basauriko zuzendariaren baimena beharko du, eta, edozelan ere, erakusketa horretan Beka aipatu beharko du berariaz.*

*Erakusketa egiteko baimena esanbidez ukatzeko erabakia arrazoitua izan beharko da. Baimena ukatzeko erabaki hori honako hauetan oinarritu ahal izango da, bakar-bakarrik: lan bekaduna erakusteko lekuaren desegokitasuna edota erakusketa hori egiteko ageri-ageriko arrazoiak egotea, interes publikoa edota indarreko legeria aintzat hartuta. Hamabost egun igarota baimena esanbidez ukatu ez bada, erakusketa egiteko baimena ematen dela ulertuko da.*

## 08.

La Casa de Cultura de Basauri y la familia de Otaola disfrutarán de derecho preferente en caso de venta del trabajo becado por parte del artista y en idéntico precio, durante el plazo de tres meses a partir de la finalización de la Beca.

*Artistak beka jaso duen lana saldu behar badu, Kultur Basaurik eta Otaola sendiak eroslehentasuna izango dute, prezio berean, Bekaren amaitu eta hiru hilabeteko epean zehar.*

## 09.

La Casa de Cultura de Basauri tendrá derecho a exponer en sus locales el trabajo becado.

*Kultur Basaurik eskubidea izango du saritutako lana bere lokaletan erakusteko.*

## 10.

El Jurado podrá declarar desierta la Beca y, en ese caso, la mitad de su importe de la Beca se destinará a la beneficencia pública y la otra mitad a incrementar la dotación de la Beca del próximo año.

*Epaimahaiak eman gabe utzi ahalko du Beka. Kasua hori denean, zenbatekoaren erdia ongizate publikora bideratu, eta beste erdia hurrengo urteko Bekari gehituko zaio.*

## 11.

Las decisiones del Jurado, sobre todas las incidencias que se susciten en la tramitación y resolución de la convocatoria, así como respecto al desarrollo de los trabajos, serán inapelables. Los candidatos, al solicitar la Beca, renuncian a toda acción judicial o extrajudicial contra las resoluciones del Jurado.

Apelaezinak izango dira epaimahaiak deialdi honen izapidetze- eta ebazte-prozesuan zehar emandako gorabehera guztiei buruz, zein lanen bilakaerari buruz hartutako erabaki guztiak.Beka eskatzen dutenek uko egiten diete epaimahaiaren ebazpenen aurkako ekintza judizial edo ez-judizial guztiei.

**Basauri, a 17 de abril de 2018**

*Basauri, 2018ko apirilaren 17a.*